

belke

2002ko IRAILA,
103. ZENB. DOHAINIK

Ba al dago hitz egiterik?

Egoera politikoari buruzko
mahai-ingurua



?!!

txotx!

baleike

BANDUA! BANDUA!
Badatorrela, badatorrela
iraileko Baleike!
Bandua!

Aldizkaria egin dutenek
honako hau adierazi
nahi dizuete: iraileko
zenbakian *Ze berri* atale-
an Narrondoko uholdeak, zine-
foruma eta Oikiako festak izango
dituzue.

Jardunian ere aritu gara, zeinekin?
Ba Ramon Telleria irakaslearekin.
Ur haunditara salto ere egin dugu.
Bertan aurkituko dituzue herriko bi
alderdi politiko giro jatorrean hitz
egiten. Behar den bezala!!



Uretan ginela aprobetxatuta, ola-
rruak bildu eta zopa gozo-gozoa



prestatu dizuegu, Zumaian hain esti-
matua den olarru-zopa.

Hori janda gero, ezinbestekoa duzue
digestioa egitea, eta zer hobeto izerdi
patsetan aritzea baino, oraingoan
Oier Aizpuruarekin eta *Imanol*
Lopezekin.



Gazte hauen kontu interesgarriak
jakin ondoren, zaharren esperien-
tziari tragoxka ederra egin behar dio-



zue *zarrak berri* atalean, oraingoan
Kontxako ura dastatzeko.

Beraz, gogoratu Baleike aldizkaria
egiten dugunon ohar hau. Irakurri!!
Bandua!! Bandua!!

HERRI ALDIZKARIA

juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberría
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola

Oikialdean orriaren arduraduna

Xabier Aizpurua

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier
Aranguren, Jon Maia,
Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,

Inaxio Manterola, Belen
Golmaio, Izaga Garzia,
Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea

Argazkiak

Baleike.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Azaleko irudia

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioako laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Herrigintzan

Ibon Manterola

UDARA HASI berri den honetan, akabo oporrak! Bukatu da goizeko hamaiketan jaikitzea, agur ezer egin gabeko arratsaldeak, akabo gau parteko tertuliak... eta badatoz eskolako lanak, goizeko edo gaueko erreleboak, nagusiaren umore txarra, erosketak presaka egitea... hitz gutxitan, udaran ahaztuta xamar izaten dugun herrigintza ate joka datorkigu berriro ere.

Herrigintza, hitz polita bera, potoloa bezain sakona. Nik neuk lehenengo (eta azkenengo) aldiz herriaren alde lan asko egin zuen lagun on bati entzun nion. Ederki esaten zuen hark, etxe berri bat egitea herrigintza da, baita ikasten edo lanean jardutea ere. Kirola egitea, kultura lantzea eta indartzea, lagunartean umore onean ibiltzea... hauek ere herrigintza dira. Baita festak antolatzea, edota halako edo bestelako proiektu berri eta adoretuak martxan jartzea ere. Orduan, dena da herrigintza, herriaren alde egiten bada.

Gauzak horrela, eta ikasturte berria abian den honetan, Zumaian denon beharra dauka herrigintzak, bakoitza bere txokotik, bere ekarpena eginez. Gu behintzat saiatuko gara hilean behin herriari bultzadaxo bat ematen. Laguntzeko prest?



Zumaian ere herritar kategoria ezberdinak omen daude

Roberto Tejera Bollain

ORAIN URTEBETE luzetik hona herriko San Juan egoitzaren paretik errepide berria egiten ari dira, bertatik eta Joxe Deuna kalearekin bat egiteraino. Lanak iazko abuztuan hasi baziren ere, orduko irailean gelditu eta aurtengo abuztura arte geldirik egon dira, eta bertan zeuden obretako materialak-eta barreiatutik.

Azkenik lanei berrekin eta badirudi datorren urteko hauteskundeen aurretik bukatuko dituztela (komeni zaielako, jakina), baina bertako auzokideon iritziak ez omen die gehiegi axola. Izan ere, karrika berria Joxe Deuna kaleko 26. eta 27. atarietatik lauzpabost metrora igarotzen den arren, egiten ari diren lanen arabera, atarietako bizilagunok berrogeita hamar metro inguru ibili beharko ditugu zorieneko kalera abiatzeko, gure etxeen eta errepidearen artean sekulako hormigoizko paretak zuzen igarotzea oztopatzen digulako.


Gauzak honela, auzokideok behin baino gehiagotan eskatu diogu Udalari (idatziz eta garaiz) sikera eskailera ziztrin batzuk jar diezazkigula bertako bizi-kalitatea hobetzeko eta etxetik gertuen igaroko zaigun karrikatik at geldi ez gaitezen, baina ezelako erantzunik ez dugu jaso honen guztiaren inguruan; egun, obrak burutzen ari eta, jakina, gure eskaria ez da aintzat hartu.

Honegatik guztiagatik ari naiz kexa hau idazten. Izan ere, Udaleko gure gobernariak ez dituzte, ez, horrelako txapuzak euren Paola aldiakari zoragarrian azalduko; ez horixe. Eta gainera, ez omen digute zertan erantzun idatziz eta epe duinean, beraiek "silencio administrativo" delakoa nahi bestetan egin baitezakete, eta epeak betetzearena hiritarron kontua besterik ez baita.

Hala ere, esatekoa da hau ez zatekeela gertatuko "bigarren mailako" gure auzunean izan ez balitz. Gurean berdin da baldosarik gabeko hormigoi hutsezko espaloiek itzelezko pitzadurak baldin badituzte, edo lora-tegirik gabeko edozelako berdeguneak jasan behar baditugu; turistek ez dute gure auzuneko txokorik pairatu behar, bertako biztanleok baizik. Ondorioz, pentsatzekoa da Zumaian ere kategoria ezberdineko zumaia-rrak bagarela, Udalaren kudeaketa jasaterakoan jakina, zergak ordaintzeko orduan denok oso bertsuak baikara.



Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



C/Basadi Auzategia, 5
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Tel. 943 86 27 45
Móvil 699 23 32 43

Beste ehun zenbaki

gabeko agorraldi denboraldietan huskeriak interesgarri bihurtzeko amarruak landu eta irudimena inoiz ez bezala esplotatu beharra, ale bat disketean grabatu eta rotatibara bidali bezain pronto hurrengo zenbakia maketatzen hasi beharra... eta berriz ere erreportaia nagusiaren hutsunea, beste kolaboratzailearen arduragabeke-
ria, inprentakoekin negoziazioak, zenbaitzuen protestak, argazki makinaren eta eskanerraren kapritxoak, informazio prebisioen eska-
sia. imajinazioaren oporraldiak... Eta hurrengo zenbakia...

Ez da lan makala izango, ez, beste ehun zenbaki lortzea...

➔ AURTEN E GATXIBEK KONTXAN.
GUK E, RONALDO FITXAU
BIARKO YAU...



→ AUNKE SEA, LEMA MOUAN
ANKA TXARRA ZUZEN
ZUZEN JARRITA.



→ TA SHUMAKER
PATROL

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe




*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Hamen earra, hamen earra!!!



JOAN DIRA, ba, aurtengo pestak ere. Aurreko alean Patxik eta Xantik iragarritako egitaraua, goitik behera bete zer Oikian. Goitik behera jardun zuen euriak ere gogotik, ondo bustitako jaiak nonbait izan badira geurean izan dira-eta. Sei egun, eta sei gau izan genituen: bateko bertsolari, besteko ume jolas, erromeriak, pilota partidak, dantza erakustaldia, ... Oilasko biltzen eta sagardo festan girotzen hasita, Oihana eta Jontxuk izan zuten ohorezko baltseorako nahiko lan. 24an sekula baino txakolinzale gutxiago, baina dantzarako sasoia badutela erakutsi zuten Bertol eta Kristina txapeldunek. Goizeko dantzariak hankak arinago mugitzen zituzten, arratsaldean proban jarritako idiek baino, igande umela. I pelota txapelketan

berriz Alkorta eta Oliden nagusi, urdaiaz-pikoa jatera arrimatu zitzaizen apopilorik. Asteartean aldiz, plaza bete ume, gorritiren animaliakieriak ikusi ostean, izeko Inaxiren txokolatea aurtun ere amaituta; gauean jarri pieza! eta Gijarro anaiak bertsotan... hauek bai direla piezak! Ezkonduen barruko kamixeta xulodunik ezin ikusi ordea azken egunean, zahatetik ordea... ardua honea!!! Asto probak, txan-paiña, eta noski, bukatzeko baratzuri zopa. Ah! Eta argia joan zen egun horietako batean, su festa ikusgarriak, Piroteknia Eskubetz-en eskutik. Ze inpresioyo?? Lasai,bado ta geyo!! Izan ere herriko jaiak aitzakiatzat hartuz, beste kontu bat plazaratzeko ordua heldu da. Azken urteetan badago Oikiarrak ardu-

ratzen gaituen makina bat gauza: haurrez betetako eskola txikiari hazi eta eraberri-tzeko garaia heldu zaio; babes ofizialeko etxebizitza berrien beharra hitzetik hortze-ra dabil; bizilagun berri ugari ditugu behar eta ideia berrieekin; apaizetxea bezalako eraikin estrategikoa pipiak jango digu laister; hauteskundeetarako bozkaleku propioa; gizarte zerbitzu eta kultura aldetik sumaturiko beharrak;arrotzak zaizkigun ikurrak;...

Oikiaren etorkizuna, oikiarroei estuki lotua dagoelako, auzolanean hasi beharra dago. San Bartolometan ikusi ahal izan dugu herrigiroa badagoela, lanean hasteko jende prestatua ez zaigu falta, eta gogoak guk geuk biziko dugun etorkizun hobeago batean amesteak ekarriko digu. Asanblada, lantaldea, batzordea,... izena da gutxiene-koa, baina hasi beharra dago zerbaitetan nortasuna galduko ez badugu.

Badakit norbaitek zer esango duen: goian azaldukoen pilota besteren teilatura bota, eta portugesen karroan ihesi joatea dela. Besteren batentzat, ideia ona baina irrealia izango dela ere badakit. Eta badakit, azkenik, zokormazoren batek zer esango duen ahots goran: hamen earra, hamen earra!!!

Xabier Aizpurua

Fantasiatzko arrakasta

ABUZTUAREN ERDIALDERA zine-astea antolatu zuten zine-forumaz arduratzen direnek. Pelikula denak fantasiatzkoak ziren, eta harrera ere antzekoa izan zuten. Jende mordoa hurbildu zen, guztira 1.000 lagun gutxi gorabehera. "El señor de los anillos" filma ikustera 600 pertsona joan ziren. Ez da gutxi ez!! Ikusgai zeuden beste pelikulak hauek izan ziren: "El pacto de los lobos", "El fantasma y la señora Muir" eta "Vidocq".

Antolatzaileak oso gustura daude izandako harrerarekin, eta datorren urtean antzeko zerbitzu antolatzearen asmotan omen dira. Baina datorren urteko zine-astea komediari eskaini nahi diotela

aipatu digute, eta dagoeneko bi pelikula erreserbatuta dituztela.

Bestalde, zine-forum saioak urriaren 10ean hasiko dira, eta abendura bitartean ikusgai izango diren filmen zerrenda ere eskuratu dugu. Hauxe da:

- "En construcción"
- " Mulholland drive"
- "Elling"
- "Ghost World"
- "El pabellón de los oficiales"
- " En tierra de Nadie"
- " Apocalypse Now Redux"

Zinezaleentzat aukera bikaina. Gozatu!!

Uholdeak Narrondon

ABUZTUKO AZKEN bigarren asteburua ez dute berehalakoan ahaztuko Narrondoko bizilagunek. Botatako euri-jasek zenbait etxetan, tabernan eta Angel Etxanizen aroztégian eragindako txikizioak dezentekoak izan ziren, eta bizi izandako larritasunak ere ez ziren gozoak izan.

Angelek esan digu oraindik kalteen balorazioa egiten ari direla, baina hasieran uste zuena baino kalte txikiagoak izan dituztela. Hori bai, eginda zeuzkaten lan batzuk alperrik galdu zaizkie. Aroztégian 70 zentimetrorainoko ura zegoela aipatu digu. Bere ustez, euren lantegiaren atzean dagoen erreka zubiak ura gorantz bidaltzen du, eta horregatik euri asko egiten duen bakoitzean lantegia urez betetzen zaie. Zubi horren ardura erakunde bakar batek ere ez du bere eskuetan hartu nahi, eta hor jarraitzen du. Angelek dioen bezala, urek aurretik norbait eraman arte ez dute ezer egingo.

Tabernan ere kalte ugari eragin zituen urak. Aitor Etxabek esan digunez, bodega urez gainezka zegoen, sabairaino iritsi arte. Tabernan bertan, aldiz, 10 zentimetroko altuera hartu zuen. Edari eta janari guztiak kenduarazi zizkion Osakidetzak, eta taberna astebetetz itxita izan zen.

Bestelakoan, zenbait etxetan ere larri ibili ziren. Zortzi bat familia beraien etxeetatik atera behar izan zituzten, metro bateko ura zutelako. Kotxe bat ere eraman zuen uholdeak.



Urak txikizio handiak egin zituen Narrondon.

Endañoa Zumaira

TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

BASUSTA ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

AITA MARI kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

ALBAITARITZA KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglais
catalán française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIRA 943 862543

"Gurasoak eta irakasleak

RAMON TELLERIA
IRAKASLEA

euskararen militanteak

ginen garai hartan"

Ikasturtea hasi berria dela eta, Ramon Telleria irakaslearekin aritu gara jardunian. Euskal hezkuntza sistema, euskararen egoera... denetik jorratu dugu "maixu Ramonekin"

NAHIZ ETA ikasturte berri baten hasieran egon, lasai dago Ramon Telleria. Espe-
rientziagatik izango da. Patxada ederrean
harrapatu dugu, eta horrelaxe aritu gara
solasean.

Zenbat urte daramazu irakasle lanetan?

78an hasi nintzen, beraz hogeita lau urte.

Zer gogoratzen duzu hasierako urte haietatik?

Gogoratu? Gauza asko. Oraingo aldean oso-oso des-
berdina zen. Nik bosgarren, seigarren eta zazpigarren
mailan ematen nuen; zortzigarrena ez zegoenez,
Zarautza joaten ziren ikasleak azken urte hori egitera.

Ikasle kopurua ere oso txikia zen.

Garai horretan euskara batuaren
auzia ere puri-purian zegoen...

Bai, bai. Herrian eztabaida handia
izan zen.

Hasiera haiek gogorrek izango
ziren, ezta?

Dударик gabe. Baliabide material eta
ekonomikoak oso eskasak ziren.
Horrek eskatzen zuen helburuak garbi
edukitzea. Gurasoak eta irakasleak eus-
kararen militanteak ginen. Pentsa, osti-
ralero gurasoek garbitzen zituzten
gelak. Orduan ez zegoen garbitzaile-
rik.

Beraz, klaseak emateaz gain, beste
gauza asko egin behar...

Dударик gabe. Lehen aipatutako
baliabide eskasak zirela eta, gorabehe-
ra asko ziren Zumaian. Bat aipatzeko-
tan, San Telmotan antolatzen genuen
berbena aipatu behar. Urtero-urtero



Egan taldea etortzen zen San Telmo bezperan. Horrekin diru pixkat atera eta aurrera. Herriko jende guztia inplikatzeko zen, eta nire ustez, santelmoak herritik kanpora zabaltzeko balio izan zuten berbena haiek. Urola guztia etortzen zen.

Garai gogorak bezain politik ordukoak...

Hori da! Jendea, bai gurasoak bai irakasleak zerbaitegatik sartu ginen saltsa horietan, euskararen militanteak ginelako. Polita izan zen, bai.

Zuk beti euskaraz irakatsi izan duzu, ezta?

Bai, bai, beti euskaraz. Hori izan da Zumaia Ikastolak izan duen ezaugarri nagusia, dena euskaraz irakastea.

Eta beti zientzietako gaiak erakusten?

Bai, gehienbat bai. Andoni Ormazuri etorri zitzaidan etxera, Zientzia Ekonomikoak bukatuta nituenenez, matematika eta horrelakoak emateko.

Ez al zara aspertzen urtero gai berdinak ematen?

Ez, gaiak ia berdinak izan arren, egoerak aldatu egiten direlako. Gainera, urtetik urtera zerbait aldatzen da. Nire kasuan, adibidez, urtero ematen ditudan zientzietako gaiez gain, beste batzuk ere eman izan ditut: plastika, gizarte, etika...


Bada hitzetik hortzera dabilen esaldia: "irakasleak oso ondo bizi dira"...

Oporren luzeragatik esaten da hori, baina hemen inork ez du ezer oparitzen. Zerbaiten ordaina da hori. Gure lanean harreman pertsonal handia dago, eta horrek batzuetan tentsioa sortzen du, momentu gogorak izaten dira. Eta horrek pertsona erre egiten du. Urte bukaerarako pilak gastatzen zaizkigu. Hala ere, une gozoagoak ere badira.

Gaur egungo ikasleek lehengoek baino buruhauste

eta arazo gehiago ematen dituztela esaten da. Hala al da hori?

Ez dakit umeak asko aldatu diren. Elkarren arteko harremanak bai, horiek desberdinak dira, bai irakasleen



Nire ustez,
ezinezkoa da gaur
egungo gurasoek
lehengoek egiten
zituzten auzolanak
egitea, adibidez



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970



Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

aldetik, baita guraso eta umeen aldetik ere. Nik hau lehen aipatutako militantziaren gaiarekin lotuko nuke. Lehen errazagoa zen dena, helburuak jarrita zeudelako eta denok helburu horiek lortu nahi genituelako. Zer-bait lortu nahi horrek asko laguntzen zuen. Denok batera joaten ginen, eta harremanak estuagoak ziren. Gaur egun, irakasleek lanpostu finkoa dute, gurasoek baliabide material handiagoak... bakoitza bere aldetik goaz. Orain guraso batzuentzat hezkuntza zerbitzu bat da, eta asko eskatzen dute.

Harreman ez hain estuak izateak ba al du eraginik umeengan?

Nire ustez bai. Hori umei transmititu egiten zaie, eta horretaz konturatzen dira.

Harreman horiek berreskuratu al daitezke?

Zaila da. Nire ustez, ezinezkoa da gaur egungo gurasoek lehengoek egiten zituzten auzolanak egitea, adibidez. Baina hori normala da. Garaiak aldatu egin dira.

Baita gizartea ere.

Bai, dudarik gabe. Baina eskola bera ere aldatu egin da. Euskal Herriko hezkuntzaren egoera hobea da. Orain normaltzat jotzen duguna, klaseak euskaraz izatea, adibidez, lehen lortu beharra zegoen. Hori lortzeko lan egin beharra zegoen. Eta gauzak lortzen gaur egungo egoerara iritsi gara: baliabide materialak hobekia dira, irakasleak hobeto prestatutakoak, etab. Batzuen ustez bukatu da, horrekin konformatzen da jendea. Eta nire ustez, hori hankasartze handia da. Oraindik asko daukagu egiteko.

Zer, adibidez?

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza sistemaren %45 baka-
rrik dauka bere esku. Beste guztia Madrilen menpean dago. Gaurko legediarekin ezin dugu aurrerago joan. Eta kontuz! Aspaldian euskal hezkuntza sistemaren aur-

kako iritziak datozkigu Espainia aldetik, eta beraien esku dago hori.

Zein da Kalitatearen lege famatu horri buruzko zure iritzia?

Oraintxe aipatutako testuinguru horretan kokatu behar da. Azken batean, atzera begira egindako legea da. Denok dakigu zein den PPkoen eredu, aspaldiko eskola tradizionala. Eskola ahaleginaren emaitza dela esaten dute, eta ni horrekin ados nago. Baina horren atzean aspaldiko eredu berreskuratzeko daukaten asmoa dago ezkutatuta.

Lege horrekin %45 hori ere arriskuan dago, ezta?

Bai, bai. Baina lege hori gabe ere bai, Eusko Jaurlari-
tzaren esku dagoen zati hori LOGSE-
ren garaikoa delako.

Hezkuntza alde batera lagata, zu zeu politika munduan ibilitakoa zara.

Bai, horretarako beharra ikusten dut.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko egoera politikoa?

Nik lehengoarekin lotuko nuke, orain arte aipatutakoarekin. Autonomia nahi-
koa dagula esaten digute, European edo munduan ez dagoela gurea adinako autonomiarik. Ni lehengora bueltatzen naiz. Hainbesteko autonomia badugu,

zertara datoz egiten dizkiguten mehatxuak, gure hezkuntzan manipulatuta egiten dela, eta abar?

Noraino iritsi daitezke mehatxu horiek?

Auskalo, baina ez nintzateke harrituko, dabil-tzan bezala ibilita, gure hezkuntzan murrizketak egiteraino iristea. Hor dago, esaterako, Eusko Ikaskuntzaren Aña-mendi entziklopediarekin gertatutakoa.

Nola aldatu genezake egoera?

Horrek erantzun bateratua eskatzen du, eta hori poli-
tika orokorreko zerbait da.

Baina dena politikoen esku uztea ez al da lehen aipatutako konformidade horren adierazgarri? Ez al

“Denok dakigu
zein den PPkoen
eredua,
aspaldiko
eskola
tradizionala”

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Paseo de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Insuendegi Elgoiber

KABI

TERMINAL - ZUMAIA

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

lukete beste sektore batzuek erantzukizun gehiago hartu behar?

Orain dela hogeita hamar urteko militantzia egoera bueltatzea ia ezinezkoa dela uste dut. Hala ere, fal-tan botatzen dut helburu batzuk finkatu eta kontzien-tzia indartzea. Hori garrantzitsua da. Badirudi, lehenxeago esan bezala, zerbait lortu eta dena eginda dagoela. Eta kontuz! Oraindik ere kolokan dago euska-raren etorkizuna eta euskal kulturaren garapena. Eta hori azaldu eta zabaldu egin behar dugu, jendeak ideia horiek bereganatuz itzalita daukan kontzientzia pizteko, bai gurasoen artean, bai irakasleen artean. Kontzientzia horrek eramango gaitu denon artean zerbait egitera. Hori da gure lana.

Euskara aipatu duzu. Zer gertatuko da euskarare-kin?

Alde batetik, eskola D eredukoa da, baina bestetik, inkestek eta ikerketek diote klasetik kanpo ez dugula erabiltzen. Beraz, badago zer konpondua. Gehienbat erabileraren aldetik, eta gazteei buruz ari naiz. Etxean, eskolan lan egin behar da hori aldatzeko.


Bestalde, etorkinak ere gero eta gehiago dira, baita Zumaian ere. Gure herrian badira, besteak beste, brasildarrak, argentinarak eta marokorak. Eskolan hori nabaritzen da. Lehen banaka batzuk etortzen ziren eta txiki-txikitatik ikastolara joanez euskaldundu egiten ziren. Orain, berriz, alderantzizkoa gertatzen da. Hogeita lauko gela batean hiru edo lau kanpotar badau-de euskaldunek jotzen dute gaztelaniara. Hor ere lana badaukagu.

“Oraindik ere
kolokan dago
euskararen
etorkizuna eta
euskal kulturaren
garapena”

Eleaniztasuna oso ondo dago, baina euskara? Ez al gara geure-geurea dena baztertzen ari? Nolako euskara erabiltzen dugu orain? Erdal hizkuntza batean mintza-tzeko arazoak dituzten umeei ordu bereziak eskaintzen zaizkie, baina euskara baldin bada kalitate txarrekoa, ontzat jotzen da euskaraz aritzea nahikoa balitz bezala. Horrelakoten erne ibili beharra daukagu.■



RAMON TELLERIA orain dela 47 urte jaio zen Zumaian. 1978an hasi zen irakasle lanetan ekonomia zien-tzietan lizentziatu eta gero, eta orain ere horretan dihardu. Irakurtzea eta kirolak ikustea oso gustuko ditu.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokata
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (heroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Arantxa Gajate, Eusko
Alkartasuneko
zinegotzia, eta Migel
Aperribai, orain
gutxira arte Batasuna
zeneko zinegotzia,
mahai baten bueltan
eseri genituen oso
nahastuta eta
gaiztotuta dagoen
Euskal Herriko egoera
politikoaz hitz egiteko.

Egoera politikoari buruzko mahai-ingurua:

“EUSKAL HERRIA irtengo da egoera honetatik”



EAJ eta PSE-EE ere gonbidatu genituen, baina ez parte hartzea erabaki zuten. Lastima, gure asmoa denak biltzea zelako hainbatetan eskatzen den elkar-irizketa giroa bultzatzeko. Hala-re, Arantxa Gajate eta Migel Aperribai oso giro jatorrean aritu ziren.

Batasunaren ilegalizazioa

Zein da Batasunaren ilegalizazioari buruzko zuen iritzia?

Migel Aperribai: Astakeria bat da, atzera-kada bat suposatzen duelako Herri honek daraman askatasun bidean eta baketze prozesuan. Bi gai horietan sufrimendua eta denboran atzera egitea besterik ez du ekarriko. Euskal Herria salbuespen egoer-
an dago, kanpotik ezarritako salbuespen egoeran, herritarrei oinarritzko eskubideak murrizten zaizkielako: biltzea, aurkeztea, manifestatzea, hauteskundeetan aurkeztea, iritzia ematea. Neurri honek eskubide horiek zapuztu egiten ditu.

Arantxa Gajate: Erabat aurkakoak gara. Orain dela hilabete batzuetatik ikusten zen bazetorrela horrelako zerbait PPkoen mehatxuak entzunda, eta azkenean gauzatu egin da. Madrildik datorren estrat-
egiaren puntu bat da, eta gure ustez, helburua ez da bakarrik Batasuna legez kanpo uztea, gizartearen oinarritzko esku-
bideak zapaltzea ere helburuen barruan dago. Ezer ere ez du konponduko, eta arazoak gehituko ditu. Gainera, baketze eta normalkuntza prozesuetan ez du ezer lagunduko.

Nora eramango gaitu gaitu prozesu honek?

Migel Aperribai: Noraino iritsiko diren aurreikustea zaila da, baina ni beldur naiz atxilotetak izango direla. Arzalluz berak ere aipatu zuen aukera hori, eta nik ere

hala uste dut, ikusiz Garzonek martxan jarritako prozesu penalean inputatu per-
sonalik ez dagoela; eta horrek iritsi beharko du. Aurrekariak edo antezeden-
teak baditugu, orain urte batzuk Mahai Nazional osoa kartzeleratu zuten, eta orain ere antzeko zerbait

gertatuko da. Epe luzera, berriz, edozer gauza gerta daiteke. Arantxak zioen bezala, nik ere ez dut uste hau Batasunaren aurkako neurrietan geldituko denik. Neurriak poli-
tikoak dira, bai PPk eta PSOEek hartutakoak, baina itxu-
ra judizialarekin Garzonek hartu dituenak ere. Horren atzean PP dago, nagusitasun osoa du, iritzi publikoa bere alde dauka, komunikabide guztiak ere bai; eta hauek zein diren badakigu, zein-
en oinordeko diren jakina da. Frankis-
moaren oinordekoak dira. Hauek orain dela hogeita bost urte autonomien esta-
tuaren aurka zeuden, eta noski, baita lurralde historikoez nazio izateko duten eskubidearen aurka ere. Eta orain inbo-
luzio bat egin nahi dute, eta beraien beti-
ko planteamenduetara itzuli, periferiara. Erdia eta periferia. Euskal Herria, Kata-
lunia eta Galizia beste erkidego autono-
moen pare izatea nahi dute, administra-
zio hutsak, beraien menpeko adminis-
trazioak, periferikoak. Noraino iritsi daitezkeen jakitea zaila da, baina lehengo batean EAJko ordezkari bati ira-
kurri nion datorren urteko hauteskunde munizipalak bertan behera utzi ditzakete-
la. Eta hori gerta daiteke, ikusten badute hauteskunde horietan ez dutela emaitza onik lortuko. Daukaten pentsakerarekin edozer gauza egiteko gai dira.

Arantxa Gajate: Auskalo noraino iritsi

daitezkeen, zeinek daki!! Hurrengo tres-
na zein izan daitekeen, batek jakin.

Migel Aperribai: Hor dago orain dela egun batzuk gertatutakoa. Ibarretxeri ez diote laga ontzi baten botadurara joaten, pertsona eta berak ordezkatzeko duen erakundea desprestigiatuz.

“Madrilgo gobernuaren indarra hemengo ahultasunean dago”

Arantxa Gajate: Azken fine-
an oso ondo kalkulatu-
dagoen estrategia da. Ez dute, esaten duten beza-
la, ETArekin bukatu nahi. Beraiek beldurtzen dituen-
a da abertzale guz-
tiok bat egitea indarkeriarik gabeko egoera batean. Orain

dela lau urte beldurtu egin ziren, eta berriz horrelakorik gertatzea ez dute nahi. Beldurra diote abertzaleok akordio politikora iristeari. ETAk ez ditu izutzen, ez die molestatzen. Gehiago esango genuke: ETA behar dute. Gure ustez bi muturrek elkarren beharra dute.

Zumaian nolako eragina izango du Batasunaren ilegalizazioak?

Migel Aperribai: Lehen aipatutakoak Zumaiako herritarrek pairatzen ditu. Gure herrian jende askok egindako auke-
ra politikoa legez kanpo utzi dute, eta ez da ahaztu behar azkenengo hauteskunde munizipalean bigarren indar politikoa izan zenaz hitz egiten ari garela. Orain jende hori erreferenterik gabe gelditzen da, ezin dute bildu, ezta manifestatu ere. Alderdien lege honekin badirudi pertso-
nak estigmatizatu egiten direla, pertsonak txarrak dira abertzaleak direlako. Eta gau-
zak dauden bezala, badirudi hemendik aurrerako hauteskundeetan arazoak izan-
go dituztela talde bezala aurkezteko.

Arantxa Gajate: Migelek esandako horre-
tan ikusten da noraino iritsi daitezkeen PPren estrategia eta Garzonen autoak. Ilegalizazio prozesua ere noiz hasi duten kontuan hartzekoa da gure ustez. Azke-
nengo hauteskundeetan, joan den urteko maiatzean Batasunak izugarritzko behera-
kada izan zuen. Zeraman bidea gizartea

“Abertzaleak Herri honen zati bat gara, eta elkartuta aukera gehiago izango ditugu aurrera egiteko”

zigortzen ari zizaion. Eta orain, badirudi ilegalizazioarekin Batasuna indartzea nahi dutela.

Migel Aperribai: Bukaeran esan duzunarekin ez nago ados. Badirudi Batasuna zigortu behar dela, hori derrigorrezkoa dela. Alde batetik, Batasunaren aurka hartutako neurrien kontra zaudete, baina bestetik, Batasunak zigorra merezi duela esaten duzue. Eta hori ez da bidezkoa. Gogoan ditut bere garaian deigarriak egin zitzaizkidan Ardanza lehendakariaren deklarazio batzuk: hauteskunde batzuk tarteko, poztu egin zen ezker abertzaleak Nafarroan botoak galdu zituelako. Hori ulertezina da niretzat. Ni, adibidez, ez naiz sekula poztu EAJk Nafarroan edo beste edonon botoak galdu dituenen. Horrelako adierazpenak ezker abertzalea gutxiesteko estrategiaren barruan kokatzen dira, eta estrategia horretan ez dira

“Ea gai garen aurrean dugun aurkari handi horri aurre egiteko, baina horretarako denen laguntza beharko da”

PP eta PSOE bakarrik izan, baita Euskal Herriko alderdiak ere, neurri handienez EAJ, baina baita EA ere. Beti egon da gu baztertzeko gogo, "hauek ez ditugu behar". Eta horrelako jarrerak erraztu egiten dute besteek, alderdi espainolistek orain hartu dituzten neurriak hartzea.

Arantxa Gajate: Guk uste dugu politikoki denontzat dagoela tokia, baina beti ere bide politikoak jarraituz. Gure ustez Batasunak behingoz biolentziari ezetz esan behar dio, eta hainbestetan erabiltzen duten intsumisioa hitza ETARI aplikatu behar diote, ETARI insumisioa egin behar dio. Batasunako buruzagiek "gora ETA" esaten duten bitartean ez dago joko politikorik. Gure ustez, ETA eta baita

Batasuna ere, Madrili jokoa egiten ari zaie, bandejan jartzen ari zaie, erraztasunak ematen.

Irtenbideak

Gaur egungo egoerak irtenbiderik bai al dauka?

Arantxa Gajate: Nik honetan jarraitzen badut esperantza dudalako da. Gaur egungo egoera zaila baino zailago dago. Alde batetik ETA dago, gogor jarraitzen du eta familietan sufrimendua besterik ez du eragiten. Gainera, ikuspuntu politikotik begiratuta eraikuntza nazionala oztopatzen ari da, eta Batasunaren helburu politikoentzat ere oztopoa da. ETA itsutsuan ari da, eta PPri jokoa egiten ari



Oso giro jatorrean aritu ziren bi politikariak.

zaio, komeni zaiolako PPri ETA egotea. Bestetik Madrilgo gobernua dago, arazoaren beste muturra. Baina lehen esan bezala, bi muturrek elkarren beharra dute. Madrilgo gobernuaren indarra hemengo ahultasunean dago. Haien estrategia garbia da: "abertzaleak banatu eta irabaziko dugu".

Bi muturren artean beste alderdiak gaude, demokratikoki gure helburuak, Euskal Herriaren eraikuntza nazionala eta independentzia, lortu nahian, onartuz demokraziak ere badituela akatsak.

Migel Aperribai: Ni ez noa inoren aurka hastera, eta gutxiago EAren aurka. Zumaian beti egon gara irekiak batekin eta bestearekin biltzeko eta akordioak lortzeko, eta udal gobernuan ez bagaude ez da guk nahi ez dugulako, bere garaian gurekin ezin zela gobernatu esan zigutelako baizik.

Bestalde, Euskal Herria txikia da eta abertzaleak Herri horren zati bat gara, eta elkartuta aukera gehiago izango ditugu aurrera egiteko. Gure aldetik ez da aurrebaldintzarik izan eta ez da izango elkartasun hori lortzeko.

Euskal Herriak sufrimendua berekin eraman izan du, eta eramaten du. Baina hori mundu guztian gertatzen da; independentzia lortu nahi duen edozein herrirentzat bidea ez da erraza izaten. Euskal Herria ere aspalditik dabil bide horretan, eta bidea behin ere ez du erraza izan, baina beti aurrera egin du ahalmen handiko jendea izan delako, eta orain ere aurrera egingo du. Euskal Herria irtengo da egoera honetatik, baina hori lortu arte sufritu egin beharko dugu. Espero dudana da, sufrimendu horren karga handiena ez erortzea, orain arte bezala, ezker abertzalearen bizkar gainera. Ea gai garen aurrean dugun aurkari

handi horri aurre egiteko, baina horretarako denen laguntza beharko da.

Independentzia, soberanismoa, autodeterminazioa bezalako terminoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzue, baina helburu horiek lortzeko pausorik ematen al duzue?

Migel Aperribai: Ezker abertzaleak beti jarri ditu proposamenak mahai gainean. Baita orain ere. Beti eskatu izan diegu beste alderdiei urratsak ematea.

Beste gauza bat da gainontzeko alderdi abertzaleen

engandik nahiko gure erantzunik ez jasotzea. Subiranotasunari buruzko proposamenak egunero plazaratzen ditugu.

Arantxa Gajate: Guk ere egunero egiten dugu lan helburu horiek lortzeko.

EAK azkenengo euskal gobernuan zeresan handia izan du gobernu horrek dituen jarrera soberanistetan, EAK eman die bultzada bide horiei.

Migel Aperribai: Gai honekin ere, ilegalizazio prozesuarekin, aipatu da "pase forala", gogoratuz bere garaian zeuden ahalmen batzuk.

Abertzaleen arteko batasuna

Ezinbestekoa al da abertzaleen arteko batasuna euskal gatazka politikoa konpontzeko?

Migel Aperribai: Bai, nik baietz uste dut. Hala ere, politikaz ari gara, eta egun batek bestera egoerak aldatu egiten dira. Orain, gaur egun, ikusita Espainiako bi alderdi nagusiek bat egin dutela, eta bote-re handiaren jabe direla, guk ere ezinbestekoa dugu bat egitea, besterik ez bada, gutxieneko akordioak lortzea. Momentu honetan sakabanatuta eta bakarrik ezin dugu ezer egin.

Arantxa Gajate: Guretzat ere ezinbestekoa da, baina beti ere politika eginez. Desberdintasunak badaude, batez ere

"Ilegalizazio prozesuarekin, aipatu da "pase forala", gogoratuz bere garaian zeuden ahalmen batzuk"

ile-apaindegia



ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



Euskal Herriak nolakoa izan behar duen erabakitzerakoan, baina gu beti egon gara prest aukera ezberdinen sintesi demokratikoa lortzeko.

Helburu bera izanda, alderdi abertzaleek zergatik ez duzue bat egiten? Hain zaila al da?

Migel Aperribai: Hasteko, ez dut uste helburu berak ditugunik, ez behintzat gizartearen izaeraren ikuspegitik. Ni abertzalea eta sozialista naiz. Alde horretatik bada ikuspuntu desberdina. Eta abertzaletasuna ikusteko garaian ere, bada desberdintasunik. Penagarria da hemen ez dagoen bat, hona etorri ez den bat aipatzea, baina EAJk duen proiektua ez da soberanista. Egoera honetaz baliatuz, beldur naiz, orain ere ez ote

duen Madrilekin itun bat sinatuko, eta beste behin, autonomia hutsarekin jarraitzearen aldeko apustua egitea ez litzaidake harrituko. Jakinda hogeita bost urteko bide horrek lehengo egoeran laga gaituela, bai nazio ikuspegitik, Nafarroaren egoera kasu, baita beste zenbait arlotan ere, kirol selekzioaren gaian adibidez. EAJk bi aurpegi ditu, hitz egite-

ko bi modu ditu, bat Madrila begira, eta bestea hona begira. Ez dut uste praktikan soberanista denik. Horri lotu behar zaio politikan sortzen diren interesak, politika ez baita aseptikoa. Alde handia dago agintean egon edo oposizioan egon. Kargu handiak daude, interes handiak, dirutza handia. EAJ urte asko darama boterean, eta horrek nahitanahiez menpekotasunak sortzen ditu.

Arantxa Gajate: Zu hasi zara esaten abertzaleak eta sozialistak zaretela. Gu ere abertzaleak gara, baina abertzaleak baino lehenago demokratik

gara. Gure asmoa da gizarteari jakinaraztea eta gizartearen konbentzitzea herri orok duela bere

burua gestio-natzeko, bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea.

Hori bai, garbi dago abertzaleok bide berdinetik joan behar dugula. Desberdintasunak? Horixe badirela. Beti salatu izan ditugu indarkeria mota guztiak, eta horrek bereizten gaitu asko.

Migel Aperribai: Nik gogora ekarri nahi nuke, EAJk egiten ez duenez, orain urte batzuk gobernuan izan zen haustura.

Orduan EAJk autodeterminazioaren aldeko apustua egiteagatik hautsi zen gobernu. Hor adibidez, berdintasuna egon badago, eta nik uste dut garaia dela ados gauden kon-

tuetan bat egiteko.


Bi estatuen estrategia agerian dago. Noizko abertzaleena?

Arantxa Gajate: Nik uste dut Batasunari falta zaiola estrategia. Madrilen badakigu, biolentziaren aitzakia hartu eta horri eusten dio. Guri dagokigunez, garbi daukagu estrategia: jendea konbentzitu independentziaren bidea dela Herri honentzat egokiena, baina indarkeriarik gabe eta Madrili jokoa jarraitu gabe.

Migel Aperribai: Nik espero dut abertzaleen arteko estrategia azkar zehaztea. Gure aldetik ez

dago eragozpenik. Ez dugu oztoporik jartzen ez biltzeko, ezta estrategiak finkatzeko ere. Gertatzen dena da, gaur egun ezin dela gurekin bildu, ezta gurekin akordioak lortu ere. Baina hori besteen arazoa da, gure aldetik ez dago inolako eragozpenik.

Momentu honetan sakabatatuta eta bakarrik ezin dugu ezer egin.



GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861391

NARRONDOS
TABERNA

Goizeko 5:30etatik
astelehenetik larunbatera
PINTXO eta OGITARTEKOAK

TEL: 943 86 24 90



Abertzale asko eta asko aspertuta dago zuen arteko ezin ikusiarekin. Autokritikarik eza leporatzen diete alderdi abertzale guztiei.

Arantxa Gajate: Nik Batasunari eskatzen diot autokritika. Biktimismoa utzi eta autokritika egin beharko du. Pentsatu beharko du bakarrik zergatik dagoen. Migel Aperribai: Nik pare bat gauza. Bat, biktimismoa: hitz hori aipatzea zinismo hutsa iruditzen zait. Nik ezin dut jarduera politikorik egin, ezin dut ezer egin gure aurka hartutako erabaki horren aurka. Lekuz kanpo dago biktimismoa egiten ari naizela esatea. Eta bi, autokritika: ados nago Batasunan ez dela behar adinako autokritikarik egon. Inolako dudarik gabe, hala dela pentsatzen dut. Alderdiak askotan dinamika batean sartzen gara: hauteskundeak, karguak lortzea da garrantzitsua... Egoera

horretan, zurrunbilo horretan ahaztu egiten dira autokritika eta beheko jendearen parte hartzea, beraien iritzia entzun, eztabaidatu, etab. Batasunan, beste alderdi batzuetan baino autokritika gehiago egin arren, benetan pentsatzen dut ez dela autokritika nahikoa egin.

Alderdi abertzaleen jarrera

Badirudi alderdi abertzale bakoitzak bere kontura konpondu nahi duela gatazka politikoa. Jarrera horrek mende baino kalte gehiago egiten dio abertzaletasunari...

Arantxa Gajate: Gure ustez hori Madril jokoa jarraitzea da. Lehen esan bezala, abertzaleok bide beretik joan behar dugu, nahiz eta desberdintasunak egon. Migel Aperribai: Ezker abertzalearen jarrera behintzat ez da hori izan, eta

JATETXEA
UBAKI
Baselari Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

amaia plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia


ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ELEKTRIZITATEA, S.L.
Erebero kalea 18 Behe Tel./Fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekinad.com
Instalazioak/batutakoak ofizialak

CANAL+ **vía** **Televisión** **Movistar**
CANAL DIGITAL **Televisión** **Movistar**

ert **informática** tresna digital
internet scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Dalac
COMPLETOS



Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balarazioak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
ZUMAIA

pentsatu nahi nuke besteena ere ez dela hori izan. Azkenean Herri bat aurrera atera nahian ari gara, norbere interesak alde batera lagata. Horrela izan behar luke behintzat. Beste gauza bat da politikak dituen alderdi zatar horiek, egoera jakinen arabera jokatu beharra, adibidez. ETA oztopoa al da independentziarako bidean? Zer-gatik?

Arantxa Gajate: Duda-rik gabe. Gaur egingo eskemekin eta legee-kin, beraien burua demokratizatzen duten alderdi horientzat ETA aitzakia bikaina da euskaldunok elka-rraren aurka jartzeko. Ozto-po handia da, baita Batasuna-renzentz ere.

Migel Aperribai: Gauza bera ez badira, ezta?

Arantxa Gajate: Ez dira, ez?

Migel Aperribai: Zure diskurtsoan ez dakit. Gauza horiek garbi utzi behar dira, eta mahai-inguru honetan niri ez zaizkit garbi gelditu, ez behintzat zure diskurtsoa entzunda. ETA oztopoa den? Nire ustez, ETAr buruz hitz egitea oso zaila da, eta hitz egitekotan lasaitasun handiarekin egin behar da, eta gaur egun ez dago giro hori. ETA erakunde armatua da, politikan diharduen erakundea, Euskal Herriaren independentziaren alde. Beste hainbat erakunde beste baliabide batzuekin ari diren bezala: ezker abertzalea, EA, EAJ... Erakunde eta alderdi

horien denen, adibidez, ETArekin, EAJren, EAren jarduerak aurrerapausoa edo atzerapausoa diren esateak irakurketa asko suposatzen ditu, eta bakoitzak bere irakurketa egiten du norbere interesen arabera. Ni behintzat ez naiz gai balorazio horietan sartzeko, eta ez dut nahi.

Zein da zuen irtenbidea Euskal Herriko gatazka konpon-tzeko?

“Garbi dago abertzaleok bide berdinetik joan behar dugula...
...garaia dela ados gauden kontuetan bat egiteko”

Migel Aperribai: Irten-bidea ukatzen zaigun horretan dago. Guk eraiki behar dugu geure etorkizuna, maila guztietan: lege-etan, gizarte mailan... Madrilenganako depen-dentzia utzi eta geuk eraiki behar dugu geure etorkizu-na, Madrildik etor daitekeenari edo han pentsatu dezaketenari begiratu gabe.

Arantxa Gajate: Zuk esan duzun horretan dago irtenbidea. Helburua garbi edukita, bide politikoetatik gure Herria osatu eta geuk agintzea.

Baina hori nola lortzen da?

Migel Aperribai: Urratsak eman behar dira, eta hasteko, hor dago lehen aipatu dudana "pase forala". Hurrengo pausoak egunerokotasunean daude: geure eskola propioa egin (gai horretan ere murrizketak izan dira); geure selekzioak osatu; alderdi politikoen legea egin, etab. Beste esparru inportantea lan mundua da. Madrildik etortzen zaizkigun baldintzei uko egin, eta geureak sortu behar ditugu. Arantxa Gajate: Zuk aipatu dituzun gai

horietan egunero egiten dugu lan, bai gobernuan, baita beste erakundeetan ere.

Beste alderdi abertzaleekin adostasunak

Zertan zaudete ados beste alderdi abertzaleekin?

Arantxa Gajate: Gu independentistagok izan arren EAJrekin bat egiten dugu biok alderdi demokratikoak garela. Batasunarekin helburuan ados gaude, bidean ez. Eta Aralarrekin, helburuan eta bidean, ados gaude.

Migel Aperribai: EAK kontraesan handiak izan arren, begi onez ikusten ditut Azkarraga eta Intxaurre sailburuen jarrerak eta iritzia; behin baino gehiagotan ados izaten naiz beraiek esandakoarekin. Subiranotasunaren bidean urrats handiagoak emanda, adostasunak gero eta gehiago izango dira. EAJrekin beste hainbeste. Gertatzen dena da, beraien oraingo diskurtsoa eta jarrera ez direla independentista inolaz ere. Hala ere, ez dut dudarik egiten, EAJko buruzagitza aparte utzita, herriko jendea, hemen Zumaian adibidez, abertzaleak direla. Eta berandu baino lehen bat egingo dugu subiranotasun horretan. Aralarrekin, kontuan izanda orain gutxi arte bat eginda egon garela, adostasunak handiak dira. Arantxa Gajate: Aralarrekin zein desadostasun dituzue?

Migel Aperribai: nik uste dut beraiek dituztela gurekin desadostasunak, eurak izan zirelako guregandik bereizi zirenak. Guk ez genituen bota, eta nahiago nuke gurekin jarraituko balute. ■

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetaarako departamentua

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxo z/g Tel. 943 861322



Inpernupe oraindik irekita dago... noiz arte?

HARRAPA ZAK

GEURE ESKU DAGO IRTENBIDEA

RUPER ORDORIKAK kanta batean dio "begira sorlekuari, zertan da neure herria?". Euskal Herriko egoera politikoari buruz hitz egiterakoan ere antzeko galdera datorkigu burura: zertan da Euskal Herria? Eta erantzuten hasita, egoera onean ez dagoela erantzun behar. Errudunak? Gu geu. Baten batek esango du Aznar, Garzon eta konpainia ere errudunak direla, eta ez zaie arrazoirik falta. Baina Euskal Herriak pairatzen duen gatazka konpontzeko horiengandik ezin dugu ezer espero. Gure esku dago irtenbidea. Azkenengo mugimenduekin, Batasuna ilegalizatzeko prozesua kasu, garbi gelditu da, lehen garbi bazegoen ere, Espainia eta Frantzia aldetik ez datorkigula ezer onik.

Lizarra-Garaziko giroa berreskuratu behar dugu, garai hark erakutsi zigulako zein den bidea. Hori bai, orduko akatsik errepikatu gabe. Hori lortzeko, orde, ETaren bide armatua soberan dago, orain egun batzuk Bilbon Ertzaintzak izandako jarrera ere bai, alderdi abertzaleen arteko liskarrak ere ez ditugu behar. Hobe genuke besteei errua bota beharrean, geure arteko ikamikak konpontzeko irtenbideak proposatu. Elkarrizketa da bidea, hitz eginda konponduko dugu arazoa. Zeren zain gaude? Ezkutuko interesei ostikada bat eman, eta has gaitezen hitz egiten. Horrela lortzen dira adostasunak, eta behin gure artekoak lortuta, esan dezatela nahi dutena Espainiak eta Frantziak. Orduan beste erantzun bat eman ahal izango diogu Ruperren kantako galderari.

Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Galdona

burdindegia

Mendara marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA

Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01

PEUGEOT

Gaur egungo elikaduraren akatsak

GAUR EGUNGO gizarte gartu, teknologiko eta industrializatuan, elikadurak ez dauka zerikusirik duela ehun urtekoarekin. Elikaduran, beste hainbat gauzatan bezala, ohiturak aldatu egin dira eta aldaketa honek berarekin akats kaltegarri asko ekarri ditu:



Izaga Garcia
Dietista

1. Zekale txuriek zekale integralak ordezkatu dituzte: gaur egun kontsumitzen diren zekaleei (garia, arroza, oloa) eta beraiekin eginiko elikagai gehienei (ogia, irina, pasta...) zahia kentzen zaie, eta honek fibra eta beste gai nutritiboen galera dakar.
2. Bitamina, mineral eta entzima gutxi hartzen da: ezinbestekoak diren gai hauek gero eta urriagoak dira elikagaie-tan, eta gabezia hauek hainbat gaixotasun eta gaitzen era-gile dira.
3. Animalia-proteina gehiegi jaten da: Arrautzaren eta, batez ere, haragiaren kontsumoa nagusitu egin da, baina eli-kagai proteiko hauek koipe desegokiak dituztenez, proteina begetalak aukeratzea osasuntsuagoa izango da: barazkiak (batez ere soja, lentejak, garbantzuak...), fruitu lehorrak...
4. Koipe "saturatu" gehiegi kontsumitzen da: hauek kolesterola, arteroesklerosia eta bihotzeko gaitzen garapenean erlazio zuzena dute, eta ez dira ezinbestekoak. Koipe mota hau haragiak, arrautzak eta prozesatutako elikagaiek dute

gehien, koko eta palma olioagatik. Koipe "insaturatuak", hau da, begetal eta arrainarenak ezinbestekoak dira gorpu-tzarentzat.

5. Gatz gehiegi hartzen da: sukaldean erabiltzen denaz gain, ogiak eta beste hainbat elikagaik, batez ere prozesatuek, gatz ugari dute.
6. Azukre txuri gehiegi hartzen da: erremolatxazko azukre txuritik (normaletik) gorputzak energia lortzeko, B1 eta B2 bitaminak beharrezkoak dira, elikagai honek bere konposaketan ez dituenez, gorputzari "lapurtu" behar dizkio. Kañazko azukre beltzak eta eztiak berezkoak dituzte bitamina hauek.
7. Fibra gutxi hartzen da.
8. Esne gehiegi hartzen da: esnea helduetan ez da ondo onartua izaten, mukiak sortzen ditu eta txitxareak mantentzen ditu gorputzean. Kaltzioa beste jatorri batekoa izatea osasuntsuagoa da.
9. Ez da behar adina elikagai gordin jaten: elikagaiak egostean bitamina eta mineral ugari galtzen da.
10. Elikagai prozesatu eta artifizial gehiegi jaten da: ahora heldu aurretik, elikagaien prozesatze eta prestaketa industrialean, gure osasunarentzat komenigarri ez diren prozedura asko erabiltzen da: ingenieritza genetikutik lortutako haziak, nekazaritzarako herbizidak, abeltzantzan antibiotikoak, kontserbanteak, aditiboak eta sustantzia arrisku-tsuak...

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Onddo salteatuak urdaiazpikoarekin eta langostinoekin

Sukaldaritza

4

RAZIO EGITEKO osagaiak:


- 400 gramo onddo
- 300 gramo langostino
- tiretan ebakitako 100 gramo urdaiazpiko
- 2 baratxuri-ale
- xehetutako perrexila, kutxarakada 1
- haragi-salda, 3 kutxarakada
- olio, 3 kutxarakada
- gatz



Beñat
Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria

Honela egiten da:

- Paela batean olio eta txikitutako baratxuriak erdiko suan berotu.
- Kolorea hartzen dutenean, laminetan ebakitako onddoak bota eta 4 minutuan sueztitan utzi.
- Hori egin eta gero, txuritutako langostinoak eta urdaiazpiko tirak gehitu.
- Gatza bota, haragi-salda gehitu eta perrexilarekin hautseztatu ondoren, 3 minutuan egiten utzi.
- Denbora hori pasata, sutatik kendu, eta jateko prest.



ON EGIN!!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Jacinto J. Azcue Yeregui

Abokatua • Asegurua
Finke Administrazioilea

biomin aguirre 4. behe
20.750 zuzketa (gizuzkoa)
E-mail: gazuas@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Iraila iritsi da eta Zumaiako ikastetxeek eman diote hasiera ikasturte berriyai, nolakua ote da hasiera irakasle eta ikaslientzat....

Ze mouz eskolako bueltan?



Arantxa Ostolaza

Hasiera beti izaten da gorra, e! Bai irakaslientzat eta bai haurrentzat. Nik beinipein nahiago oporretan jarraitzia bainan... Bueno beharrezkoa degu ba lanian hastia eta, baina bestela nik nahiago oporretan jarraitzia.



M Isabel Ibarra

Beno, ahaztuta geneukan oaingo martxa baina dagoeneko akordatu gea. Bost urteko haurrak nahiko ohituta daude baina txikiyenak ordu bete etorri dabilta pixkanaka ohitzen.




Eneko Rodriguez

Bueno... ondo. Oporretan hobeto.



**Imanol Ieregi
eta Inaki Espilla**

Ondo. Baina oporretan hobeto.



Uxua Sorazu

Ba gogor xamarra, ez? Gehienbat ez umiagatik, baizik eta antolaketa beti ere zaila delako holako ikastetxe handi batian, gehienbat etortzen dan korreua ta papelak, epiak, jangelak... pixkat dana antolatu arte. Ya pixkat lasaitzen ai gea.

STAIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151


SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

Hasi da ikasturte berria

ZUMAIAKO HERRI Eskolak eta Maria eta Jose Ikastetxeak irailaren 11n zabaldu dituzte ateak ikasturte berriari ekiteko. Bietan izan gara ikasturte hau nola hasi duten jakiteko asmoz.

Zumaiaiko Herri Eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zuzendari Uxua Sorazuk esan digunez, aurren ere iazko kurtsoaren antzeko matrikula izan dute 2 urteko haurrei dagokienez, eta hiru gela osatu dituzte. Kontuan hartu behar da baita, gaur egun adin honekin hasten direla haur gehienak eskolara.

Maria eta Jose Ikastetxean ere kopuruak ez dira asko aldatu. Bi urteko haurren artean iaz baino ume batzuk gehiago matri-

kulatu dira, eta ikastetxe guztia kontuan hartuz gero antzerako ikasle kopurua dute.

Bi ikastetxetan azkeneko bi urte hauetan izan dituzte bestelako matrikulak ere, Uruguai, Venezuela, Argentina, Kuba eta Sevillatik etorritako haurrekin. Haur hauek adinaren arabera maila batean edo bestean kokatu behar izaten dituzte, eta maila batetik aurrera haurrek zailtasunak izaten dituzte hizkuntza dela eta. Txikiek, berriz, errazago barneratzen dute euskara.

Zumaian haur guztiak D ereduan matrikulatzen dira, bertan ez baita beste eredurik eskaintzen. Beraz, haur guztiek euskaraz egiten dituzte beraien ikasketak eta euskera darabilte eskolan. Baina kalean zer?



Josu Gurrutxaga

Gaixki!!! oso gaixki...



Ibon Eizagirre

Ondo...

Tapaia
Zumaia

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarkeak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

AROTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505

Oier Aizpurua Munduko Txapeldun



SEVILLAN JOKATUTAKO piraguismo-ko Munduko Txapelketan, 200 metrotan urrezko domina eta 500 metrotan bronzekoa lortu ditu, biak K-4an

Horrelako arrakastak behar bezalako ongi-etorria merezi zuen eta halaxe izan zen. Irailaren 2an itzuli zen Oier eta sekulako ezustea izan zuen herrira iritsi bezain pronto. Zubi txikian jende mordoa bildu zen, txaranga eta guzti, Itxas Gain taldeko lagunak antolatutako ongi-etorrian parte hartzeko. Oier harrituta zegoen, "ez nuen espero horrelakorik. Europako Txapelketatik bueltan klubean egin zidaten zerbait, eta oraingoan ere antzeko zerbait espero nuen. Horrelako ongi-etorriak arraunlariei egiten zitzaizkien Kontxa irabazten zuteanean". Txapela, lore-sorta eta txaloak jaso

zituen, baita hamaika sinadura egin ere. "Lotsatuta nago, baina oso pozik. Hau urte osoan egindako lanari esker ona ematea da. Eskerrak ematen dizkiet guztiei", esan zigun Oierrek.

Herritarrek lagunduta iritsi zen udaletxera, eta han dantzariak aureskua dantzatu zuen bere omenez. Alkateak eta zenbait zinegotzik agurtu ondoren, balkoira igo eta herritarrek agurtu zituen. Behin udaletxe barruan, Oierrek leihatutako hiru finaletako irudiak ikusteko aukera izan zuten han bildutako guztiek. Ohiko hitzalditxoan ostean, mokadutxoa jatera.

Lortutako emaitzekin txoratzen zegoen Oier, "oso pozik nago. Ez nuen espero. 200 metrotan irabaztea ez genuen uste, beste biak espezialista handiak direlako, baina Sevillara joandako zumaiarren laguntzarekin urrea lortu genuen. 500 metrotan, berriz, domina lortzerik ere ez genuen espero. Bosgarren edo seigarren izanda gustura izango ginen. Izugarria izan zen".

Hau dena oso polita da, baina aurrera begiratu behar dela esan zigun, "bi urte barru Olinpiadak dira, eta han izateko bidean goaz. Hurrengo Munduko Txapelketan, Atlantian, 1.000 metrotan aurreneko zortziren artean sailkatu behar dugu Atenasko Joko Olinpikoetan izateko. Ea bizkarreko arazoak sendatu eta osasunak laguntzen didan".

Horrelaxe izan dadila. Zorionak Oier!!




Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERAKOPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Imanol Lopez bigarren munduko txapelketan

DOMINA BAT, bi domina, hiru domina... Zumaiaiko kirolariak onenen pare dabilzala ezin ukatu behintzat. Aldamenean Oierren lorpenak aipatu ditugun bezala, oraingoan beste herritar baten arrakasta gogoratu behar. Nafarroan jokatu berri den Pelotako Munduko Txapelketan Imanol Lopezek zilarrezko domina irabazi du zesta-puntan. Honela kontatu digu txapelketan bizi izandakoa.

Egia esan, irabazteko asmoarekin joan ginen Munduko Txapelketara. Hasteko, lehenengo fasea jokatu genuen. Guztira hiru partida izan ziren: Kubari 35 eta 13 irabazi genion; Mexikori 35 eta 14; baina Frantziarekin 28 eta 35 galdu genuen. Partida hau galduta itxaropen pixkat galdu arren, oraindik ere irabazteko ilusioa eta gogoia mantentzen genituen. Kubatarrei eta mexikarrei oso erraz irabazi genien. Nire ustez, pelotalekuagatik izan zen. Gehienbat Mexikokoen aurka. Erremonte-frontoian jokatu genituen partidak, eta haiek ez daude ohituta horrelako lekuetan jokatzeko.

Finala

Iritsi zen kale edo bale egiteko partida, final handia, eta kontrarioa Frantzia. Lehen fasean beraien aurka galdu eta gero, gogo handiarekin atera ginen. Gainera, beraiek finalerdietan larri-larri iraba-


zi zuten Estatu Batuen aurka, eta horrek konfiantza pixka bat galduarazi zien. Hala ere, izugarritzko partida jokatu irabazi egin ziguten. Lastima. Gu ondo hasi ginen, baina konturatzerako alde egin ziguten. Gero 31na berdintzea lortu genuen, eta hor irabaztea bagenuela pentsatu nuen. Baina azkenean, 32 eta 35, beraiek nagusi. Dena den, bigarren postuarekin gustura nago; gehiago nahi izaten da beti, baina pozik.

Giroa

Ezin hobeto pasa dugu Iruñean. Hotelean oso ondo zaintzen gintuzten, eta bi aste zoragarri igaro nituen. Gainera, kanpoko jendea ezagutzeko aukera izan dut. Beno, kanpokoak edo... Izan ere, euskal herritarrek ginen gehienak, nahiz eta beste selekzio batzuekin jokatu. Azkeneko egunetan parranda pixka bat egiteko aukera izan genuen, eta horrek beti laguntzen du jendea ezagutzen. Oso esperientzia polita izan da.

Etorkizuna

Profesionalerako pasa nahiko nuke, baina hemen aukera gutxi dagoenez, kanpora joan behar da. Eta egia esan, badut gogoia kanpora joateko. Baina orain ikasten ari naizenez, beste pare bat urtean hemen segiko dut, eta gero kanpora irtetzen saiatuko naiz.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

KONTXAN HIRUGARREN! ...1954an

Joan da Kontxako Estropada, eta berarekin batera zumaiairen festa ederra. Aurtengoan ere ahal duten guztia eman dute gure arraunlari bikainek, baina beti ezin denez punta-puntan ibili, egindako ahalgina eskertzea besterik ez zaigu geratzen.

Horregatik, herrian arraun munduan dabiltzanei eta ibilitakoei eskaini nahi dizkiegu ondorengo lerroak. Hara ze kontatu dizkigun sasoi batean arraunean egin zuen Joxe Mari Gorostolak.

Zumaian aurrenengo pausuak eman'tzituenaik arraunian gu gitxuan, batela txikiyakin da hasi gitxuan, kuadrillakin hasi gitxuan. Gu hamen ibili giñanak ya herrikuak ibili gittuan, kanpoko jendeikan ez giñen guk.

Guk azkenengo estropa jokatu giñun, en el año cincuenta y cuatro,

Zumaian kluba orduantxe juntatu huan, da orduan ba herrikuak, triñauik ez gitxikan, donostiarrak emate zizkun arraunak eta triñauak eta danak emate zizkun. Da hilabetian o hilabete t'erdian ibilita, ez uain bezela nobienbrian da dizienbrian hasita tenporada. Orduan, etziuan horrelako uain don bezelako gauzikan. Ezta ezta pentzatu're. Meikuak justu-justu, zeoze baldin bagendun. Bihotzak eta rekonozitu ta hori, ezta pentzatu're ez horrelakoikan. Pixatu ite ziun, pixatu, astian behin o hamabostian behin pixatu ta ya gora ite gendun o bera ite gendun o.

Kontxan in deunik puestoik onena, hirugarren izan huan, Oriyo behintzat atzian laga genian. Tanda batian etorri gitxuan, aurrena Errenteiarrakin eondoko pelea eukita, aurrenengo regatan bigarren geatu gittuan, ta geo bigarengo regatan hirugarren. O sea klasifikasiyo



berrota amalauan. Ordutikan honea asko kanbixatu da arrauna. Orduan kuenkakuak bakarrikan izate gitxuan. Guk gitxikan, Zumaia gitxikan, Mutrikuk nola etzekan triñauik, hemendikan Mutrikuraino, ta geo guria huan hamendikan Zumarraga, Cuenca del Urola deitze ziun. Ta Oriyok-eta Tolosa ta hori dana. Ta Pasaekuak eta hoiek berriz ba, Hernani ta, hoiek danak harrapatzen zitien. Zenbat eta herri haundixo ta kuenka haundixo...

Kontxako Estropada

Gaur 200 kiloko triñauak zizkek, ta guk, guriak 340, ta kostrukziyo diferenteko triñauak txuan. Guk ez gitxikan triñauikan orduan. Orduan Centro de Atracción y Turismok ipintze zitian zortzi triñau. Ta estropak zitoztian ba galtzea, estropak zitoztian galtzea, ta iñor etzuan presentatzen.

jenealea hirugarren. Aurrena Iberia, bandera eraman'tzien gaiñea, laugarrenge balizatikan. Ta bigarren San Juan, hirugarren gu, laugarren Oriyo, bosgarren Errentea o etzekiat zein'tzan, ta zazpiarren zauztarrak, azkena zauztarrak hitxuan.

Sasoi hartan ere Oriotarrak...

Donostiko Kontxan beti eon dek pikia. Oriyok beti botatze'ik aurrena baetz. Oriyotarrak beak esanda ziku, batela txikiyan ibiltze giñanian arraunian, zeakin, Batista Oliden ta Olidentarrakin. Haiek Oriyotik, haiek danak Ortaizakakuak hitxuan, ta gu berriz hamenguak. Gu ibiltze gittuan, azkenengo Campeonato de España el año cincuenta y dosian, jun gittuan gu zeara, Iruna, Isla de los Faisanes, han jukatu huan el año cincuenta y dosian Campeonato de España. Ta hirugarren geatu gi-



Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

txuan, ta oriyotarrak biarren ta Iberia aurrena. Ta guk esan gitxuan, "gaur'e behintzat errezibimiento earra ingo'izue zean, Oriyon." "Oriyon aurrena etortze ez baldin bazea etziok errezibimientoikan. Oriyon biarren etortzia dek frakaso, aurrena etorri bihar dek Oriyon," haiek hala esate ziuén guri. Ta haiek'txuan bateletan bandea danak, inguruko bandea danak eramaten zituenak, haiek'txuan arraunian.

Kontxa eta zumaiairrak, banaezinak

Zumaitikan gu bandea "bai-ez" da ibili giñanian, Zumaian alkateikan'e ez, apaizak bakarrik geatuko'itxuan. Jende dana Donostira.

Ez ahaztutzeakoak...

Guk erten bihar giñen hamabi t'erditan, biarrengo tandan gittuan gu. Gu sartu gitxuan tanda de honor. Ta aurrenengo tandak erten bihar'tzian hamabitan, ta biarrenak hamabi t'erditan, uaintxen bezelaxe. Ta gu ordubaterditan, pentza zak ze denboale zeon, ordubaterditan, artian Kontxan gitxibitan ertetzeko.

Kamixetak-eta han emate zitien. Ta hamen pasaetarrak, Aita Manuelen semiak esan'tziun: "ze kamixetakin korritze'zue?" Han emate'uenakin. Ta esan'tziuan, "uan nik esplikatuko'izueta: hik atea zak kontua emate'ielá alkandoa bat, jantzitzeko. Ta alkandoa tokatze zakela txikiya. Hik alkandoa hik dakaken bizkarrian sartze'ek haura. Hi han amarruta hao, hik alkandoa hura eztakak ondo. Ta hamendikan aurrea in'tzazue, nahi bazue entrenamentuetan ibili zazue kamixeta, ta nahi baldin bazue han emate'izuenakin jokatu. Baiña rekomendatze'izueta, entrenamentuetan ibiltze'zuen kamixetak garbitu ta bearekin jokatu. Ta bestiak, datorren urteako gorde, entrenamentuetan da ibiltzeko.

Zumaiairrak bai espabilatuak!

Salida're, gu giñan garaian, lau balizetan jarri triñauak, eta eote huan erdi-erdiyan eote huan gabarra bat. Ta harek zekan kañoi bat, kañoi txiki txiki bat. Ta polborakin betetze zien kañoiá. Ta han'e tranpa ziuán, guri erakutzi ziuán. Aurrenengo estropa jokatu giñen, da pum!, salida, aire.

Ta lehorrea etorri giñanian esan'tziun, Argoñi ta nei, esan'tziun: "salida zerrekin hartu'zue?". Tiruakin. "Moteillak, huri tiruakin eztek iten, huri ikasiko'iu astian hamen." Ta ba al dakik zer'tzan dana? Polbora, katxaperuan katxarrua, mokoillua deitzen'tzakona jarri, polbora jarri, polboran kia ikusten danian, han'tziok tirua. Ta haiek esan'tziun, patroia esan'tziun, "hik triñaua zuzen, ta tripulaziyo dana ixo eh! Ta listo." Argoñi ta nei, "kia ikuste zuen momentuan, ttau!, batek o bestiak ttau! esan azkar." Halaxen, hamen pruebak in genixkian.

Hara allatu gitxuan da patroiak esate ziuán, "ikuste al dezue gabarra?". Ta bai, hamentxen dakau earki. "Ba lixto eh!". Ta halako batian, polbora, kia. Ttau! Ta han erten giñien, bestiak akortu zianeako gu palaa bat emanda. Ta han triñaua moitziak asko baliyo dik! Triñauak, ta!, salto hura itia, haura dana dek estropa. In giñen zea hori, ta tandan hirugarren etorri gitxuan. Klasifikaziyo jenealea hirugarren geatu giñan. Aurrenengo reatan biarren etorri gitxuan. San Juan aurrena ta gu biarren, bost seundoa.

Orduan ere baziren tranposoak

Cincuentaitresian pasa zikun earra. Orduan klasifikasiyuán arabera Nauticon jartzen zitien bandeak. Estropa bukatu ta gure bandea donostiarren atzetik. Nola leizke? Gu beayen aurretik torri ta hayek aurretik? Jun gatzuk juezana, ta uaindik kronometruan denboa jarrita. Donostiarrei minutua gutxiko jarri zioten. Beti zumaiairrai iten'tziuk tranpa!!

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



RUSH "Vapor Trails"(2002)

SEI URTE LUZE pasa eta gero, hemen datorkigu kanadar hirukote mitikoa beraien "Vapor Trails" disko berriarekin.

Bazirudien "Different stages-live" zuzeneko hirukoitzarekin bukatutzat joko zutela beraien musika karrera luzea, izan ere Neil Peart bateriajolearen tragedia eta gero (urtebeteren buruan alaba kotxe istripu batean eta emaztea minbiziak jota hil baitziren)taldea desagintzat jotzen zen.

Disko berri honekin, bizirik jarraitzen dutela argi geratu da, eta 90eko hamarkadan harturiko ildoari jarraiki (Test for Echo, Counterparts diskoak kasu) energiaz beteriko lan bat eskaini digute, Hard-Rock-aren inguruan gustura sentitzen direla garbi utziz.

Aldaketak ere ekarri dizkigu, izan ere taldearen identitate zeinuei muzin egin gabe, oraingoan sintetizadoreak baztertuta geratu baitira.Hala ere, indarrez, birtuosismoz eta melodiaz beteriko kantuek ohiko lekua betetzen dute, soinu aktualago baten alde egin duten apustua nabarmena bada ere.

Lana "One little victory" kantuearekin hasten da, Peart-en eritmo eta bateria soinu pertsonalera eramaten gaituena, beti ere Alex Lifeson-en riff markatu batez lagunduta ."How it is"-ek "The Trees" edo "Freewill" kantu arrakastatsua gogoratzen ditu, eta ikusgarria da Lifeson-ek gitarra erritmoekin egiten duen guztia. "Secret Touch" azkarra da, pisutsua, Geddy Lee-ren ahots eta baxuak inongo kontzeziarik uzten ez duten lana. "Vapor Trails" -en berriz eritmo konplexuak ageri dira, eta lan guztian aurkituriko melodiek gradurik gorena hartzen dute.

Aipamen berezia merezi dute letrek ere, Peart-ek ohiko kalitate eta heldutasuna eman dio-eta lan guztiari. Hala ere, bizi-tako tragedia pertsonalak disko osoan zehar izan duen eragi-



na nabarmena izan da, letra guztiek erreflexioarako parada ematen dute-eta. Azpimarratzekoak dira "One little victory" (benetan esanguratsua) nola "Sweet miracle" kantua, non Peart-ek aurkituriko maitasunak beragan izaniko eragina azaltzen digun:

"Lost without a trace
No hope at all
No hope at all
Oh-sweet miracle
Love's sweet miracle
Of life
Oh salvation
Oh salvation"

"Gidarik gabe galdua
Inongo esperantzarik gabe
Inongo esperantzarik gabe
Oh! mirari atsegina
Maitasuna bizitzako
mirari atsegina da
Oh! Salbu
Oh! Salbu"

(Neil Peart, 2002)

Oro har lan bikaina Rush-en azken hau, ordu askotarako ematen duen horietakoa!

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Zine berria "eraikitzen"

JOSÉ LUIS GUERIN zuzendari eta gidoiari kataluniarrak egindako azken pelikulak emango dio hasiera 2002/2003 ikasturteko zine forum denboraldiari. En construcción izeneko pelikula hau pasa den urteko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen. Ordutik makina bat sari jaso ditu eskaini den zinemaldietan. Garrantzitsuenetakoa Espainiako Zine Akademiak emandako Goya saria izan daiteke.

Urteetan zehar Jose Luis Guerinek Barzelonan lehen "El Chino" auzoa zenean

filmatu zituen auzo horren birrintzean eta beste auzo berri baten eraikuntzan bizi izandako pasadizoak. Hasiera batean zuzendari kataluniarrak dokumentala egin nahi zuen, baina sekuentziak aukeratu eta editatzeko moduak hasierako asmoak aldatu zituela erakusten dute.

Aktoerik ez dago, mixeriatik oso gertu bizi den bikote drogazalea izan ezik. Beste guztiak benetako, eguneroko pertsonaiak dira: eraikuntzako langileak, "El Chino"ko auzokideak, bertako tabernetako ohiko

bezeroak... Eta Guerinek hiru urtetan filmatu zituen hezur-haragizko pertsonaiak fikziozkoak bilakatzen dira ustegabeen. Horrela, egunerokotasuna, marginazioa islatzen ditu Guerinek. Horixe zen, hain zuzen, zuzendariaren helburua: egunerokotasunaren alde onak eta txarrak erakustea. Aktore ez diren horien gidoia bakarrik dago, baina filma bere indarra, poesia, ironia eta burlarengatik harrigarria da, baita bere naturaltasun, xalotasun eta minarengatik ere.

"En construcción"

Zuzendaria:

José Luis Guerin

Aktoreak:

Juana Rodriguez,

Ivan Guzmán

Juán Lopez

Urriak 10, osteguna,

22:15etan,

Aita Mari zinean



L PRACTICAS AUTO-ESKOLA ZUMAIÁ	STOP - Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua - Praktika eta azterketak Azpeitian - GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea Basadi, 12 behea Tel. 943 861018	7 MARES 7 MARES Arrain eta mariskoak Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak Zuloaga plaza, 1 Tel. 943862309
---	--	--

IRAILAK 27, 28 eta 30

ARTADIKO JAIK.

IRAILAK 30

Julene Azpeitia 15. ipuin lehiaketara
lanak aurkezteko azken eguna.

IRAILAN eta URRIAN

Hainbat erakusketa Oxforden:
BERTSO-ESKOLAKoa eta ANADE
ELKARTEAren 50. urteurrenarena

URRIAK 25

ARGAZKI-RALLYaren
sari-banaketa

URRIAN


ZUMAIKAKO FUTBOL TALDEAren 25
urteko historia biltzen duen
liburuaren aurkezpena

URRIAK 10

ZINE FORUM 22:15etan
"En construcción" filma
Aita Mari zinean

URRIAK 24

ZINE FORUM 22:15etan
"Mulholland drive" filma
Aita Mari zinean



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santxo auzoa40



Erribera kalea 10 behe Telf /fax: 943 14 30 97
www.ekin.com ekin@ekin.com

**Interneterako behar
duzun guztia
eskaintzen dizugu**

Interneterako
konekzioa

Tarifa laua

Internet bonoak

Modem-ak

ADSL Konekzioa



ADSL

Interneterako konekzioa:

- ✓ Tarifa lauaz
- ✓ Egun osoa konektatua egoteko
- ✓ Internet eta telefonoa batera erabiltzako
- ✓ 5 korreo elektroniko kontu
- ✓ 10 Mb. zure web gunea egiteko
- ✓ telefonica.net webgunera sarrera

